Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko maiatzaren 19a, asteazkena — 92 — Miércoles, a 19 de mayo de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Enpresak sortzeko prozesuetan konprometitutako pertsonei aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalak eta erakundeak homologatzeko 2021eko deialdia.*

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak ondorengo Foru Agindua eman du 2021eko maiatzaren 8an:

Maiatzaren 8ko 73/2021 (ES) Foru Aginduak arautzen du enpresak sortzeko prozesuetan (batez ere autoenplegua eta mikroenpresak) konprometitutako pertsonei aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalak eta erakundeak homologatzeko prozedura, zerbitzu horien kalitatea, eraginkortasuna eta profesionaltasuna bermatzeko.

Foru Agindu horren 6. artikuluak xedatzen du homologazio prozedura ofizioz hasiko dela, deialdi bidez.

Hori dela eta, foru diputatuak honako hau

EBAZTEN DU

*Bakarra.* Onartzea enpresak sortzeko prozesuetan konprometitutako pertsonei aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalak eta erakundeak homologatzeko 2021eko deialdia, foru agindu honen eranskinean jasota dagoena.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2021eko maiatzaren 10a.—Segundo Díez Molinero, Departamentuko idazkari teknikoa. (3248)

*Enpresak sortzeko prozesuetan konprometitutako pertsonei aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalak eta erakundeak homologatzeko 2021eko deialdia.*

*1. artikulua. Xedea.*

Foru agindu honen xedea da enpresak sortzeko prozesuetan konprometitutako pertsonei aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalak eta erakundeak homologatzeko deialdia egitea, maiatzaren 8ko 73/2021 (ES) Foru Aginduaren arabera.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Convocatoria 2021 para la homologación de profesionales y de entidades prestatarias de servicios de asesoramiento y asistencia técnica a personas comprometidas en procesos de creación de empresas.*

El diputato foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural ha dictado, con fecha de 8 de mayo de 2021, la siguiente Orden Foral:

La Orden Foral 73/2021 (ES) de 8 de mayo regula el procedimiento de homologación de profesionales y de entidades prestatarias de servicios de asesoramiento y asistencia técnica a personas comprometidas en procesos de creación de empresas (fundamentalmente autoempleo y microempresas), a fin de garantizar la calidad, eficacia y profesionalidad de dichos servicios.

El artículo 6 de la misma Orden Foral dispone que el procedimiento de homologación se iniciará de oficio mediante convocatoria.

En su virtud, este Diputado Foral,

RESUELVE

*Único.* Aprobar la convocatoria 2021 para la homologación de profesionales y de entidades prestatarias de servicios de asesoramiento y asistencia técnica a personas comprometidas en procesos de creación de empresas, que se acompaña como anexo a la presente orden foral.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas o entidades interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 10 de mayo de 2021.—El secretario técnico del Departamento, Segundo Díez Molinero. (3248)

*Convocatoria 2021 para la homologación de profesionales y de entidades prestatarias de servicios de asesoramiento y asistencia técnica a personas comprometidas en procesos de creación de empresas.*

*Artículo 1. Objeto.*

Es objeto de la presente Orden Foral realizar la convocatoria para la homologación de profesionales y de entidades prestatarias de servicios de asesoramiento y asistencia técnica a personas comprometidas en procesos de creación de empresas, con arreglo a la Orden Foral 73/2021 (ES) de 8 de mayo.

EK\CV GAO-I-2021-03248

*2. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

Homologazio eskaera aurkeztu ahal izango dute Gipuzkoan kokatutako enpresa edo erakunde publiko edo pribatuek, baldin eta maiatzaren 8ko 73/2021 (ES) Foru Aginduaren 3. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

Eskaera eta erantsitako agiriak Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez baino ez dira aurkeztuko (https://www.gfaegoitza.eus).

Informazioa eta eskaera orria Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren webgunean egongo dira eskuragarri.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da; eta 2021eko uztailaren 7ko 12:00etan amaituko da.

*3. artikulua. Dokumentazioa.*

a) Erakunde eskatzailearen datuak.

b) Homologatu nahi den erakundeari edo enpresari eta profesionalei buruzko memoria (Ekonomia Sustatzeko Zerbitzuak ezarritako ereduen arabera), honako hauek jasoko dituena:

— Erakundeak duen esperientzia maiatzaren 8ko 73/2021 (ES) Foru Aginduaren 4. artikuluan aurreikusitako zerbitzuen garapenean.

— Homologazioa eskatzen den profesionalen prestakuntza, gaikuntza eta esperientzia, aholkularitza emateko eta bideragarritasun planak egiteko.

— Langileen datuak: (langileak, ekintzaileei/enpresei zuzeneko arreta ematen dieten pertsonak).

— Erabilitako lan-metodologia, taldea eta ekimena kudeatzeko moduak, genero-ikuspegiaren tratamendua, eta bi hizkuntza ofizialen tratamendua.

— Lana egiteko baliabide materialen azpiegitura, lokalaren deskribapena eta ekipo informatikoen eta konexio telematikoen zuzkidura jasotzen dituena.

c) Erantzukizuneko adierazpena, ezarritako ereduaren araberakoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoetan ere.

d) Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean daudela egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua.

*4. artikulua. Zuzenketa.*

Eskaeran edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan identifikazio daturik ez badago, edo akatsak badituzte edo osatu gabe badaude, entitate eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan dioena aplikatuz, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

*5. artikulua. Ebazpena.*

Eskaera ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko azken egunaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ebazpen hori banan-banan jakinaraziko zaio erakunde eskatzaile bakoitzari.

*Artículo 2. Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

Podrán presentar solicitud de homologación las empresas u organizaciones, públicas o privadas, radicadas en Gipuzkoa que cumplan los requisitos previstos en el artículo 3 de la Orden Foral 73/2021 (ES) de 8 de mayo.

La solicitud y la documentación que se adjunte se presentará únicamente a través del registro electrónico de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://www.gfaegoitza.eus).

La información y el impreso de solicitud estarán disponibles en la página web del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

El plazo de presentación de las solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria y finalizará el 7 de julio de 2021 a las 12:00 horas.

*Artículo 3. Documentación.*

a) Datos de la entidad solicitante.

b) Memoria referida a la entidad o empresa y a las personas profesionales para las que se solicita la homologación (según los modelos establecidos por el Servicio de Promoción Económica) que incorpore:

— La experiencia de la entidad en el desarrollo de los servicios previstos en el artículo 4 de la Orden Foral 73/2021 (ES) de 8 de mayo.

— Formación, capacitación y experiencia de cada una de las personas profesionales para las cuales se solicita la homologación para el asesoramiento y realización de planes de viabilidad.

— Datos de la plantilla: (personas empleadas, personas destinadas a la atención directa con personas emprendedoras/empresas).

— Metodología de trabajo utilizadas, equipo y formas de gestión de la iniciativa, tratamiento de la perspectiva de género; y tratamiento de los dos idiomas oficiales.

— Infraestructura de medios materiales para el desempeño de su labor, en la que figure una descripción del local, así como la dotación de equipos informáticos y conexiones telemáticas.

c) Declaración responsable, conforme al modelo establecido, de no hallarse incursa en ninguna de las prohibiciones establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como aquellas referidas a la Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y hombres.

d) Documentación actualizada que acredite el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

*Artículo 4. Subsanación.*

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reuniera los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición, en los términos previstos en el artículo 21.1 de ese mismo texto legal.

*Artículo 5. Resolución.*

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de 2 meses, a contar desde del día siguiente al del plazo límite para la presentación de solicitudes.

Dicha resolución se notificará individualmente a cada entidad solicitante.

EK\CV GAO-I-2021-03248